

## Zer da TXEKEPREST?

Elkarte zein boluntarioek badaquite zein garrantzitsua den formakuntza, ekintza boluntario egoki bat burutzeko. Baina batzutan, ez da horretarako behar adina baliabide izaten. Hori dela eta, Gizaldek programa honen bidez, boluntarioen formakuntzara sarbidea erraztu nahi du.

Txekeprest, formakuntza finantzatzeko programa da, eta Gipuzkoako elkarte, zein irabazi asmorik gabeko erakunde ezberdinetako boluntariotza programetan, beren ekintza boluntarioa burutzen duten pertsonen zuzendua dago.

Txekeprest en bidez, elkarteek beren lanerako komenigarritzat jotzen dituzten oinarritzko zein sakontze ikastaroak, bai tailer, formakuntza espezifikokoak eta baita master, gradu ondoko, "on line" ikastaro etab. finantzatu ahal izango dira. Bakoitzari egokien datorkion herri, ordutegi zein gaien inguruko formakuntza aukeratu ahal izango duenaren berezitasunarekin.

## Nork eska dezake?

Programa honetan parte har dezaketenak:

- Elkarteren batean boluntario lanetan gutxienez 12 hilabetez aritzea.
- Baliabide urriak dituzten elkarteetako liberatuak. (kasuan kasuko errealitateak aztertuko dira).

## Zer egin behar da eskatzeko?

Programa honetan parte hartu ahal izateko, sarbide baldintzak betetzeaz gain GIZALDEN izen emate orria bete beharko da.

Eskaera orria bete eta entregatu ondoren balorazio bat egin eta astebeteko epean emango da erantzuna.

## Nola funtzionatzen du?

- Ikastaro bakoitzeko eskaera orri bat bete beharko da.
- Diru laguntzaren ordainketa, ikastaroaren ordain agiria eta bertan parte hartu duenaren agiria entregatu ondoren egingo da.
- Programa honek ikastaroen matrikulak ordaintzeko laguntza emango du, eta ez bidai, dieta eta antzekoenak.
- Pertsonako eta urteko gehienez 250€ tako diru kopurua eskuratu ahal izango da.
- Txekeprest programak, bereziki horretarako izendatua dagoen diru kopurua agortu arte iraungo du.

**GIZALDE**  
Voluntariado Gipuzkoa

C/Idiakez, 6 behea

20004 Donostia- San Sebastián


Tel. 943 428013 Fax 943 429827

Web: www.gizalde.com

E-mail: gizalde@gizalde.com

# TXEKEPREST

## Ayudas para la formación de voluntarios/os



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa  
Giza Eskubideetarako, Espigamala eta Gizarte- eta Lan-Departamentua  
Departamento para los Derechos Humanos, el Empleo y la Inserción Social

